

## Julen Arzuaga: "Martin Scheinin etortzea eta kale borrokaren fenomenoak aintzat hartzea berebizikoa izan zen niretzat"

Mikel Asurmendi | 2010-07-15



Julen Arzuaga abokatua (Argazkia: Dani Blanco)

Julen Arzuaga abokatua da. Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokitiko kidea. *La maza y la cantera* (Txalaparta) liburuaren kariatara solastatu gara berarekin. Datorren astean kaleratuko dugun elkarrizketaren bi pasarte dituzu jarraian.

**La maza y la cantera-ren egilea zara. Liburuak Gurasoak elkartearen zigilua darama. Zein izan da elkarte horren zeregina?**

Gurasoak-eko kideek bultzatutako lana da, eurek eskaini zizkiguten artxiboak. Duela hamabost bat urte hasi ziren eurak materiala biltzen eta pilatzen, ordenurik gabe. Materialaren egoera kaotikoa zen kasu batzuetan, errepikakorra. Hutsuneak zituen ere, baina guk hortik abiatu genuen azterketa. 1.700 fitxa atera genuen, gazteen inguruko kasuak, kale borrokaren edo antzeko akusazioetan auzipetuak. Badira ere atxilotuak egon gabe, auzietan prozesatuak izan direnak. Prentsara -edota hemerotekara oro har- jo izan dugu ere halabeharrez. Abokatuen txostenak eta lanak orrazte ditugu bestalde.

**Gurasoak-en lanetik abiatuta, kanpoko hainbat erakundeen arreta bereganatzea izan duzue helburu. NBEko errelatorearen txostena aipatu duzu liburuan, esaterako.**

Bitxia da. Izan ere, honelako lan bat egitean ez dugu bakarrik gure barne-historia analizatzea bilatu, kanpotik nola ikusten gaituzten ere ezagutu nahi izan dugu. Badago ni neroni lan hau egitera bultzatu ninduen elementu bat, Martin Scheinin finlandiarren dokumentua.

Martin Scheinin terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubiderako errelatorea da. Espainiako Estatuan eta Euskal Herrian egon zenean gomendio bat eman zuen kale borroka fenomenoari buruz. Honela esan zuen: "Kale borroka eta terrorismoa parekatzen badituzu zigor kodearen ikuspegitik, alde batean daudenak bestera pasatzera bultzatzen ari zara". Erantzun kriminologiko berdina ematen diozu fenomeno biei.

Hau da, kale borroka al da ETaren harrobia? Edo errepresioak bultzatu izan al ditu gazte batzuk -agian ETAn sartu nahi ez zutenak- ETan sartzera? Nik hori esaten badut, batzuek astakeria galantatzat hartzen dute, baina errelatore batek pertzepzio hori baldin badauka, badago zer pentsa. Liburuan hori ere agertzen da, kanpotik begiratura dagoen pertzepzioa da, oparitzen diguten ikuspegia. Martin Scheinin hona etortzea eta kale borrokaren fenomenoak aintzat hartzea, "terrorismoaren" aurkakoan dena ez dela baliagarria esatea, berebizikoa izan da niretzat.

### Aldizkariak

**argia**

**afika!**

Brian Currin

**Apartheid garaia ganditu zenbakoak**

**2239. zkia.**

Edukiak | Azala PDF-n  
Aurrekoak | RSS  
**Harpidetu zatez!**

### Larrun

"López lehendakariaren Gobernua eztabaidan"

### OPORREN kantola

nekazal turismoa  
landetxeak  
hotelak  
kanpinak  
aferpetxeak ...